



“VITORIA-GASTEIZKO UDAL URAK, S.A.”

MERKATARITZA SOZIETATEAREN ESTATUTUAK

Atariko artikulua.- **Sozietateko hizkuntza ofizialak.**

Euskara eta gaztelania dira Gasteizko Udaleko hizkuntza ofizialak, baita sozietate honetakoak ere, eta bata nahiz bestea erabili ahal izango da. Sozietatearen argitalpenak, iragarkiak eta abar bi hizkuntzetan egingo dira.

1. artikulua.- **Sozietatearen izena eta izaera.**

"AGUAS MUNICIPALES DE VITORIA-GASTEIZ, S.A. (AMVISA) VITORIA-GASTEIZKO UDAL URAK, SA" merkataritza sozietate lokal bat da, sozietate anonimoaren forma juridikoa hartzen duena, Gasteizko Udalak eratua. Merkataritzaren alorreko legediari, Sozietate Anonimoen Legeari, legedi lokalari eta estatutu hauei lotua egongo da.

2. artikulua.- **Xedea.**

Sozietateak, Gasteizen zein ondoren adieraziko diren udalerriko herrietan, uraren ziklo osoaren etapa guztien kudeaketa, ustiapena eta administrazio iraunkorra bideratzera zuzendutako jarduerak burutzea du xede:

- Hornikuntza: edateko ura atera, bildu, edateko on bihurtu eta banatzea.
- Saneamendua: bildu, garraiatu, araztu, ur zikinak berrerabili, baita sortutako lohiak eta hondakinak tratatzea ere.

3. artikulua.- **Jarduteko gaitasuna.**

Nortasun juridikoa du sozietateak, eta jarduteko erabateko gaitasuna, estatutu hauetan eta indarrean den legedian finkatutako moduan. Ordenamendu juridiko pribatuaren mende egongo da erabat, eta honako hauetarako izango du ahalmena, besteak beste:



- a) Bera jabe den edonolako ondasun eta eskubideak baliatu, administratu, iraungiarazi, aldatu, eratu, besterendu, eskualdatu, eduki nahiz erosteko.
- b) Bestelako entitate edo sozietateetan parte hartzeko, bere helburua hobeto lortzeko.
- c) Edonolako egintza eta erreklamazioak bideratu, errekurtsioak aurkeztu, kudeaketak egin, hitzarmenak sinatu, itunak izenpetu, obligazioak bere gain hartu, kredituak hitzartu, obligazioak jaulki eta jaraunspen, legatu, emari, diru-laguntza, sorospen eta bestelako laguntzak onartzeko.
- d) Langileak, obrak, zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatzeko eta bere zerbitzuak kudeatu eta administratzeko.

Jarduteko ahalmenaz baliatzen delarik, sozietateak publizitate eta lehia printzipioak aplikatuko ditu ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko orduan, eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, aldiz, langileak kontratatu behar izanez gero. Era berean, aurrekontuen, finantzen kontrolaren eta eraginkortasunaren alorrean aplikagarri zaizkion arauetara moldatuko da.

4. artikulua.- Iraupena.

Sozietatearen iraupena mugarik gabekoa izango da, eta Merkataritza Erregistroan inskribatzen denetik aurrera ekingo dio bere jarduerari.

5. artikulua.- Sozietatearen helbidea.

Hauxe izango da sozietatearen helbidea: Puerto Rico kalea, 10.

Sozietatearen helbidea lekuz aldatzea erabaki ahal izango du Administrazio Kontseiluak, baita udalerrian bertan bulegoak jartzea nahiz horiek kentzea.

6. artikulua.- Kapital soziala.

558.340,24 euroko kapital soziala du sozietateak, oso-osorik Gasteizko Udalak jarria, bera izaki sozietateko akziodun bakarra.

30,050604 euroko 18.580 akzio izendunek ordezkatzeko dute kapital soziala, eta akzio bat baino gehiago bildu ahal duten tituluetan dago jaso.



Gasteizko Udala da akzio horiek ordezkatzeko duten kapital sozialaren jabe bakarra, eta ezin izango du ez besterendu, ez beste zerbaitetarako baliatu.

7. artikulua.- Organoak eta zuzendaritza.

Organo hauen ardurapean egongo dira sozietatearen zuzendaritza, administrazioa eta kudeaketa:

1. Batzar Nagusia.
2. Administrazio Kontseilua.
3. Lehendakaria eta lehendakariordea.
4. Kudeatzailea.
5. Kontratazio mahaia.

8. artikulua.- Batzar Nagusia.

Udalbatza osatzen duten berberak osatzen dute Batzar Nagusia, eta izendapenei, funtzionamenduari eta erabakiak hartzeko prozedurari dagokienez, legedi lokalean araututakora egokituko da.

Gasteizko Udaleko udalbatzako lehendakari dena izango Batzar Nagusiko lehendakari. Idazkari, berriz, udalbatzako idazkari nagusia.

Ohiko bilkurak urtean behin egingo dira, urte natural bakoitzeko lehen sei hilabeteetan egin ere.

9. artikulua.- Batzar Nagusiaren eskumenak.

Eskumen hauek ditu Batzar Nagusiak:

- a) Administrazio Kontseiluko kideak izendatu nahiz kargutik kentzea.
- b) Estatutuak aldatu nahiz sozietatea deuseztatu edo likidatzeari buruz erabakitzea, baita sozietatea bestelakotu, fusionatu, zatitu edo beste sozietateren batean parte hartzeari buruz ere.
- c) Kapital soziala gehitu nahiz murriztea, zorra edo obligazioak jaulkitzea eta maileguak, hipotekak nahiz bestelako kargak eratu, onartu nahiz kitatzea.
- d) Inbentarioa, aurrekontua eta urteko kontuak onestea.
- e) Kontu-ikuskariak izendatu nahiz kargutik kentzea.
- f) Merkataritzaren alorreko legediak eta Sozietate Anonimoen Legeak Batzar Nagusiari aitortzen dizkion gainerakoak.

10. artikulua.- Administrazio Kontseilua.

Administrazio Kontseiluari dagokio sozietatea kudeatzea, administratzea eta ordezkatzea.



Udalbatzaren batzordeak eratuta dauden gisa berean osatuko da Kontseilua. Batzar Nagusiari dagokio kideen kopurua finkatu eta horiek izendatzea. Kontseiluak gutxienez bederatzi kide eta gehienez hamahiru kide izango ditu.

Nolanahi ere, Administrazio Kontseiluko kideen erdiak eta bat gehiagok, gutxienez, zinegotzi izan beharko dute.

Kontseilari karguaren iraupena bat etorriko da toki erakundeko hauteskunde-mandatuarekin, eta ezingo da izan lau urtetik gorakoa.

Kontseiluan hutsik geratzen diren lekuak haren erabakiz beteko dira Batzar Nagusia bildu eta behin betiko izendapenak egin bitartean. Ordezkatzen dituzten kontseilarietara kargua uztea noiz zegokien, orduan utzi beharko dute kargua Kontseiluan hutsik geratutako lekuak betetzeko kontseilari izendatuek.

11. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren bilkuren erregimena.

Hilean behin bilduko da Administrazio Kontseilua ohiko bilkuran, aldeztu aurretik zehaztuko den egunean eta orduan.

Lehendakaria beharturik egongo da Kontseiluaren aparteko bilkurarako dei egitera baldin eta kontseilarien heren batek hala eskatzen badiu, eta ezingo du Kontseiluaren bilkura bost lanegunetik gora atzeratu, aztertu beharreko gaia azaltzen duen idazki dela medio eskaria egiten zaionetik kontatuta.

Bilkura balio osoz egiterik izan dadin, ezinbestekoa izango da Kontseilua osatzen duten kideen erdia eta bat, gutxienez, bertan izatea, lehendakariak –edo lehendakariordeak– eta idazkariak gain. Kontseilariaren batek ordezkaria izendatzen duelarik, bilkuran den beste kontseilari bat izan beharko du, eta idatziz adierazi beharko da.

Bilkuran diren kontseilarien gehiengo absolutuz hartuko dira erabakiak –ordezkatuak ere aintzat harturik–, salbu eta legeak bestelako gehiengoak eskatzen dituenetan.

12. artikulua.- Idazkaria eta kontu-ikuskaria.

Gasteizko Udaleko Osoko Bilkurako idazkari nagusia edo hark ordezkari izendatzen duena izango da Kontseiluko idazkaria. Kontu-ikuskaria, berriz, udal kontu-hartzailea edo hark ordezkari izendatzen duena. Hori arduratuko da sozietatea kontrolatu eta fiskalizatzeko zereginenez, indarrean dagoen legediak xedatutakoarekin bat etorritik.



13. artikulua.- Kontseiluaren eskumen eta zereginak.

Sozietatearen organo betearazlea da Administrazio Kontseilua, denik eta eskumenik handiena izango baitu haren xede soziala bete eta garatzeko orduan, salbu eta legez nahiz estatutu hauetan hala jasota dagoelako Batzar Nagusiari edo Kontseiluko lehendakariari eta ez besteri dagozkienak. Horrenbestez, ahalik eta eskumenik handiena izango du kontratatzeke eta era guztietako egintza eta negozioak burutzeko, obligaziozkoak eta xedatzezkoak, karga ezartzekoak, ohiko nahiz aparteko administraziozkoak eta jabetzakoak, era guztietako ondasun, higigarri, higiezin, diru, balore inmobiliario eta gaiak direla eta, beste organoren baten eskumenekoak ez direlarik eta xede sozialaren barruan sartzen direlarik. Orobat eman ahal izango ditu ordezkotzan helburu horiek betetzeko beharrezko diren ahalmenak. Bereziki, honako hauek dagozkio Administrazio Kontseiluari:

- a) Bere jarduera arautzea, estatutuetan nahiz Sozietate Anonimoen Legean aurreikusi gabekoetan.
- b) Kontseilarien dimisioa onartzea.
- c) Batzar Nagusiari aurkeztu beharreko gai guztien berri alde aurretik izatea, horien nondik norakoak finkatu, segimendua egin eta, berari badagokio, onestea, eta, bereziki, honako hauek:
 - 1) Sozietatearen urteko jarduera programa, ekintzen oroit-idazkia eta ekitaldi bakoitzeko txostena.
 - 2) Sozietatearen ekitaldi bakoitzerako aurrekontu proiektua, urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena.
 - 3) Estatutuak aldatzeko proposamenak.
- d) Bere eskumenaren esparruan ekintzak bideratzea erabakitzea, beste organo batzuek premiazko egoeretan egindakoak berrestea, bere erabakien kontrako erreklamazioak ebaztea eta sozietatearen jardueraren nahiz erabakien kontra aurkeztutako kexa eta erreklamazioen berri izatea, eta egoki deritzona erabakitzea.
- e) Sozietatea titular den ondasun higiezinak besterendu, eskuz aldatu nahiz kargatzea.
- f) 12.000 eurotik (hamabi mila euro) gorako gastuetarako baimena ematea.
- g) Erakunde publikoekin, entitate pribatuekin nahiz partikularrekin izenpetzen diren hitzarmenak onestea, Batzar Nagusiaren eskumena ez bada.
- h) Sozietatearen organigrama, plantilla, zereginak eta enplegu baldintzak onestea.
- i) Sozietatearen Kontratazio Mahaiko kideak izendatzea, eta haren funtzionamendu arauak finkatzea.
- j) Kudeatzailea izendatu nahi kargutik kentzea.
- k) Batzar nagusiak beraren gain uzten dituen gainerako zereginak.



Aurreko eskumen zerrenda zerrendatze hutsa da, ez baitu helburu mugak jartzea. Zeregin horiek hobeto betetzeko, uneoro bereganatu ahal izango dute kontseilariak sozietatearen esku dagoen informazioa, Kontseiluko lehendakariari proposamenak egin nahiz eskariak, eskeak eta galdeak aurkezteko ahalmena gorabehera. Proposamen, galde eta eske horiek aurkezten direnez geroztik Kontseiluak egiten duen ohiko lehen bilerako gai zerrendan sartu beharko dira.

Aurreko hilabetean egindako gastuen berri emango da, idatziz, Administrazio Kontseilua biltzeko ohiko deialdietako bakoitzean, baita behin behineko balantzaren berri ere.

14. artikulua.- Lehendakaria eta lehendakariordea.

Bertako kide eta, aldi berean, zinegotzi direnen artetik hautatu eta izendatuko du Administrazio Kontseiluak lehendakaria, baita, modu berean, lehendakariordea ere, zeinek ordeztuko baitu lehendakaria bertan ez bada, kargua hutsik geratzen bada edo hura gaixorik badago.

15. artikulua.- Lehendakariaren eskumenak.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak ordezkatzeko du sozietatea enpresaren ibilbide edo trafikoaren baitako gai guztietan; horretarako, edozein agintari, erakunde publiko edo entitate pribatu nahiz partikularren aurrera agertu ahal izango du, baita edozein jurisdikziotako epaitegi edo auzitegien aurrera ere. Zehazki, hauek izango dira lehendakariaren eskumenak:

- a) Administrazio Kontseilurako deia egitea.
- b) Bilkura bakoitzean aztertuko diren gaien zerrenda finkatzea.
- c) Eztatanda eta bozketetan buru izatea, eta horiek zuzentzea. Berdinketa gertatuz gero, Administrazio Kontseiluaren hurrengo bilkuran bozkatuko da berriro proposamena. Bigarren bozketan berdinketak jarraituz gero, baztertutzat joko da.
- d) Sozietatearen jarduera-ildo eta irizpideak proposatzea Kontseiluari.
- e) Kontseiluak onetsitako hitzarmen eta kontratuak sinatzea, eta 12.000 eurora arteko (hamabi mila euro) edozein eratako kontratu eta gastuak izenpetzea, Kontseiluaren edo Batzar Nagusiaren eskumenekoak direnak salbu.
- f) Kontseiluaren izenean jardutea, hura ordezkatzuz, edozein eratako auzi eta prozeduretan nahiz epai- eta administrazio-errekurtsoetan, eta horretarako beharrezko den ahalmena besteri aitortzea.
- g) Sozietatearen organigrama, plantilla, zereginak, enplegu baldintzak eta hitzarmen kolektiboa proposatzea Kontseiluari, baita aurrekontuak, balantzak, inbentarioak, jarduera programak eta ekintzen oroit-idazkiak ere.



16. artikulua.- Kudeatzailea.

Administrazio Kontseiluak izendatuko du kudeatzailea, lehendakariak proposaturik. Administrazio Kontseiluak, halaber, gaitzetsi egin ahal izango du kudeatzailea, bertako kideen gehiengo absolutuz hartutako erabakia dela medio. Hala gertatuz gero, beste norbait proposatu beharko du lehendakariak kudeatzaile izateko.

Erabateko dedikazio eskusiboz jardungo du kudeatzaileak, Kontseiluak besterik erabakitzen duelarik salbu, eta kargua profesionala eta ordaindua izango da.

17. artikulua.- Kudeatzailearen zereginak.

Hauek dira kudeatzailearen zereginak:

- a) Kontseiluari nahiz Kontseiluko lehendakariari, zeini bere zereginetan laguntzea, eta aholkuak ematea jorratzen dituzten gaien inguruan, eta horien erabaki eta ebazpenak gauzatzea.
- b) Sozietatearen organigrama, plantilla, zereginak, enplegu baldintzak eta hitzarmen kolektiboa proposatzea Kontseiluko lehendakariari, baita aurrekontuak, balantzak, inbentarioak, jarduera programak eta ekintzen oroit-idazkiak ere.
- c) Sozietatearen jarduera zuzendu eta ikuskatzea, eta bultzatzea; sozietatearen zerbitzura diharduten langileen zuzeneko eta ondoko buru izatea, lana banatu eta kontrolatzea eta, oro har, sozietateak al bait ongien funtziona dezan beharrezko diren neurriak hartzea.
- d) Kudeatzailearen esku utzi ahal izango du lehendakariak kontratu eta gastuak formalizatzea, bere eskumeneko diren kopuruen barruan.
- e) Erabaki eta ebazpenak gauzatzeko beharrezko diren sozietatearen agiriak izenpetzea, eta ontzat ematea ziurtagiriak, likidazioak eta kontratatutako obra, zerbitzu nahiz hornikuntzen hartzea, baita haren funtzionamendutik sortutako gastuak ere, baldin eta aurreko atalean adierazitako kopurua gainditzen ez badute, Kontseiluari, hartako lehendakariari nahiz Batzar Nagusiari dagozkien onespenezko gorabehera.
- f) Lehendakariak berariaz ordezkotako izendatzen duelarik, sozietatea ordezkatzeko edozein agintari, erakunde publiko edo entitate pribatu nahiz partikularren aurrean, baita edozein jurisdikziotako epaitegi edo auzitegien aurrean ere.
- g) Oro har, Kontseiluak nahiz hartako lehendakariak ematen dizkieten zereginak bere gain hartzea.



18. artikulua.- Kontratazio mahaia.

Kontratazio Mahai bat izango da sozietatean. Administrazio Kontseiluak onetsiko ditu horren osaera eta funtzionamendua.

Kasu bakoitzean aplikagarri zaizkion printzipio eta araudi publikoak errespetatuz jardungo du beti ere Kontratazio Mahaia.

19. artikulua.- Balantza eta kontuak.

Kontabilitate publikoaren erregimenaren menpe dago sozietatea; Merkataritza Kodeko xedapenak, merkataritzaren alorreko gainerako legedia eta Kontuen Plan Orokorra ere aintzat hartuko ditu. Ekitaldi bakoitza urtarrilaren 1.etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Ekitaldia bukatu ondorengo hiru hilabeteko epean, urteko kontuak, kudeaketa txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena egingo ditu Administrazio Kontseiluak, Sozietate Anonimoen Legearen ildotik.

20. artikulua.- Deuseztatzea eta likidatzea.

Sozietate Anonimoen Legean aurreikusitako arrazoietakoren batengatik deuseztatu ahal izango da sozietatea, eta Gasteizko Udala izango da oinordeko unibertsala.

Xedapen gehigarria

Estatutu hauek onetsi ondoren, arauzkoa izango da Administrazio Kontseiluak sozietatearen barne funtzionamendurako araudi bat egiteko prozedura abiaraztea.